

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

RAIN-GLASSES

Ez al duzue inoiz egun euritsuetan betaurrekoak bustiak daudenean hauek kendu eta garbitzeko beharrik eduki? eta parabrisa baten beharrik izan? Ez al zaizue beroaren eraginez betaurrekoen kristalak lausotu?

Egoera deseroso hauen aurkako konponbidea dugu!

Betaurreko hauek parabrisa txiki batzuk dituzte patilla bakoitzaren barruan. Botoi bat sakatzerakoan hauek automatikoki irten eta kristalak garbitzen dituzte beharrezkoa gertatzen zaigun une guztietan; euria ari denean, hotza egiten duen toki batetik toki bero batera sartzerakoan, kirola egiterakoan...

Diseinuari dagokionez, hainbat motatako betaurrekoak eskeintzen ditugu, modu honetan edozeinek gure produktu berri hau erosteko eta erabiltzeko aukera izan dezan. Betaurrekoak kolore ezberdinetakoak izan daitezke eta hauen tamaina ugaria da, direla umeentzako direla nagusientzako. Koloreak beraien artean konbina daitezke, alde batetik patillak, bestealdetik parabrisasak eta gero betaurrekoa. Pertsona guztientzako izan daitekeen produktu baliagarria da eta abantaila handiak eskaintzen ditu betaurrekoak erabiltzen dituzten pertsonentzat. Oso deserosoa da bai kristalak zikinak edukitzea, bai buziak edukitzea eta bai lausotuak edukitzea.

Betaurrekoaren funtzionamendua honako hau da: patiletan mekanismo batzuk dauzkate, hauk botoia pulsatzerakoan piztu eta martxan jartzen dira. Horrela parabrisasak patilatik atera, altxatu eta kristalak garbitzen dituzte. Mekanismoa automatikoa edo manuala izan daiteke. Modu automatikoan, parabrisak sistema berezi bat dauka non "X" denbora tarte batean automatikoki pasatzen den, guri inolako esfortzurik eragin gabe. Nahi izanez gero, modu manualera aldatzeko aukera izango luke bezeroak. Modu hontan, botoia pulsatzearekin bakarrik nahikoa izango litzateke parabrisak kristalak garbitzen hasteko.

Betaurrekoaren lenteak edozein motatako graduaziozkoak izan daitezke. Graduazio altua daukaten pertsonendako zein graduazio baxua daukatenerako izan daitezke, baita ere graduaziorik izango ez duten kristaldun betaurrekoak egingo ziren.

Betaurreko hauek oso erabilgarriak dira, gehien bat klima euritsua dagoen tokietan bizi den jendearentzat.

